

# PENITENTZI ARRIGARRIA



Gure eskura etorri dan «Paris-Match» batean, oraintsu betiko emendik joan zaigun XXIII'gn. Juan Aita Santu agurgarria'ren aurrean, zirko'ko emakume bat uxoa domatzen daukan trebetasuna erakusten ari da. Gizonik aundienak ere orrelako gauzak maite izaki...

Argazki orrek, gure erri ontan gertatu, edo gerta balitz bezela, kontatu zidatena oroitu arazi dit.

\* \* \*

Ez da atzoko kontua, aspaldikoa baizik.

Arratsaldeko bostak. Gure Eleiz ederra erdi illunpean zegon.

Ate txikitatik sartu ta korura igotzeko dauden eskalleren asieran, gordegordean, an zegon Joxepa, Goierriarra bera, aitortzeko zai, bere azterketa egiten.

Ontan, kanpotar itxura dun, aldrebes xamar jantzitako gizon bat sartu ta aldare guztieri begiratzen asi zan; «Animena»'ri begira luzaro egon zan, baita aldare nagusiari ere.

Laisterka Sakristira zijoan mutiko bateri galdera batzuek egin zizkion eta, onek, gure Joxepa gordeta zegon aldera eskuakin erakutsiaz, zerbait erantzunzian.

Beregana ba-letor bezela gizon ura ikusiaz, ikaratu zan gure Joxepa. Zer nai ote zun gizon orrek?

Bereala lasaitu zan. Orain Don Jose jartzen dan aitortleku edo konpesonario aurrean belaunikatu bai zan arrotz ori, eta itxuraz Joxepa an zegonik ere oartu gabe.

Andik amar minutura Erretore jauna agertu zan.

Gure gizona aitortzera urbildu da. Aitorketa luzea nolabait ere. «Lixiba garbitze sendoa», nere lagun batek esango luken bezela.

Au bukatutakoan, apaiza'ren onespena artu eta altxatzerakoan, Erretore jaunak galdetzen dio:

—Zu, berriya zaitugu emen, ezta?

—Bai jauna; egun abetan erri ontan komeriante talde bat lanean ari dala jakingo du noski?

—Ba-dakit, bai; eta oso onak dirala ere entzun det.

—Oietakoa nauzu ba; jinasi eta orrelakoak egiten ditut.

—Gauza ikusgarria izango da ori, ezta?

—Ez al du beorrek bein ere ikusi?

—Ez ba, orra, zuek beti gabaz lan egiten dezute, berandu, eta gu apai-zok garai ortan oeratuak izaten gaituzu, eta egia esan, gustora ikusiko nuke zure lana; izan ere, euskaldunei ainsteste gustatzen zaizkigu indar-jokak...

—Ori besterik ez bada, emen bertan, bereala, gu biok bakarrik gauden ezkerero, zerbait egingo nuke.

—Emen, Eleiza'n?

—Zergatik ez?

—Tira ba, tira, bañan azkar ibilli.

Erretore jauna ez zan aitortlekutik atera ere. Gure komeriantea an asi zan bere saioa egiten: bira batera, buelta bestera; atzeraka, buruakin lurra jo-

tzeraño. Azkenik, eskuak lurpean zitulala, buruz bera, anakak gora jasoaz zuzen-zuzen jarri zan.

—Ori dek ori abildadea! — diots apaizak, txalotzeko zorian.

\* \* \*

Bitartean an zegon Joxepa, bere begiak ikusten zutena ezin ziñisturik.

Alako batean, gizona, buruz bera anakak zutik zitula jarri zanean, an atera zan Eleiza'tik korrika batean gure Joxepa.

Mikelazulo'tik tximista bat ez bezin zijoala, Iñaxi'rekin topo egiten du.

—Nora zoaz orrekin korrika, Joxepa?

—Gure Erretore jauna erotzen asi zaigu, Iñaxi.

—Zer bada?

—Kanpotar itxurako gizaseme bat bera'rekin aitortu da eta ez dakizu ondo nolako penitentzi eman dion.

—Zer penitentzi?

—Or ibilli du gizona, gora ta bera milla bira egiñaz eta azkenik, eskuak lurpean jarri eta anakak gora ditula eduki du.

—Eta?

—Eta, diozu? Nik ere Erretore jauna'rekin aitortu bear ba-det eta orrelako penitentzi-rik ematen ba-dit ere, kulero garbiyak jastera noala...

Eta an joan zan gure Joxepa korrikatxikian...

“ETXE-BESTE”

